

**Taller Marta Ramos-Yzquierdo, Trabajar menos / Hacer más  
Tailerra: Marta Ramos-Yzquierdo, Lan gutxiago egin / Gehiago egin**

Martes 11/01/2022 Asteartea

10 - 14h y 15.30 - 17.30h

Sala Iparragirre Aretoa



**DENBORA GALTZEAREN PLAZERA.  
TAILERRA: LAN GUTXIAGO EGIN, GEHIAGO EGIN.**

Artista garaikideak urteetako esperientzia du gaurko langile prekarioa izaten. Profesionala da, langilea. Baino, bazterretik jarduten duen egilea eta, aldi berean, merkatu-sistema baten parte ere bada –galeria komertzialez gain, instituzio publiko eta pribatuak, akademia eta esparru horretan lan egiten dugun eragileak ere barne hartzen dituena–. Bi mutur horien artean mugitzen gara, gatazkaren eta erresistentziaren artean, liskarraren eta infiltrazioaren artean, zentzu kritikoak askatasunean sortuko dituen jarduera artistikoa garatu ahal izateko.

Zer aurkitzen dugu Italiako 1977ko autonomia-mugimenduen sormen-jarreran? Defendatzen zituzten kontzeptuak –besteak beste, sormena, lanaren arbuioa, dibertsitate ororen inklusioa, botere-egitura guztien aurkako borroka– eta horiek bizitzeko moduak –manifestazioak, pasierak, jaiak, okupazioak, autoedizioak eta abar– estrategia dadaistekin eta situazionistekin lotu dira. Gaur, 1977ko ziurgabetasunak hedatu eta azkartu egin dira. Hainbat ahotsek adierazi dute sistema-aldeketa beharrezkoa dela, eta jarrera hori dela gakoa. Izen al daiteke giltzarri horretarako artista, "arte-bizitzako" profesionala, langile prekarioaren eta ni-aren etengabeko eraikuntzaren paradigma, negoziazio-taktika gisa?

Tailer honek lortu nahi du guztien artean -artista eta arlo artistikoko langileen artean-hausnartzea gure lanak gizartean izan dezakeen / guk izan nahi dugun eginkizunari buruz: nola definitzen garen bertan profesional gisa, nola hautematen den gure praktika eta zer estrategia imajinatu behar den lan egin eta egin bitarteko bizitzako joan-etorriak ulertzeko.

Bi saiotan banatuko da, eta istorioak eta esperientziak partekatuko ditugu, baina enpresa-dinamikak ere aurrez aurre jarriko ditugu ideia eta aukera berrieikin:

1. Iragan hurbileko eta gaurko lekuei, moduei eta irudiei buruz hitz egitea, PRAKTIKA ARTISTIKOARI, haren PROFESIONALIZAZIOARI eta gure eguneroko BALDINTZA MATERIALEI buruzko elkarrizketari ekiteko.
2. Denboraren araua ezagutzea bizitzaren normatibizazioa iraultzeko. Hausnarketa kolektiboko diseinu irekia, DENBORA DEFINITZEKO. ERABILGARRITASUNA DEFINITZEKO. DENBORA ERABILGARRIA DEFINITZEKO. ZURE DENBORA ERABILGARRIA DEFINITZEKO. Pentsatzeko ea posible den LANA EZEZTATZEA edo LAN GUTXIAGO EGITEA eta GEHIAGO EGITEA.

Saio bakoitzean sarrera bat egingo da, eta, bertan, LAN GUTXIAGO EGIN. GEHIAGO EGIN ikerketaren parte diren ikuspegi eta esperientzia artistikoak partekatuko dira, lagungarriak izango baitira egingo ditugun galderei elkarrizketa zabaltzeko. Latinoamerikan, Italian eta Estatu espanyiarrean XX. mendearen erdialdetik gurdaino gertatu diren istorioak gurutzatuko ditugu, egungo proposamenak aztertuz, esate baterako, Artistaren Estatutua eta beste politika kultural eta ekonomiko batzuk.

Dinamikak ere garatuko dira, bai banakakoak, bai taldekoak; normalean, enpresa-eremuan aplikatzen dira, eta balizko definizioak, gatazkak eta proposamenak identifikatu nahi dituzte artista izatea zer den eta gaur egungo ekoizpen-testuingurueta nola sartzen den zehazteko. Ariketa horiek galdera errazak dituzte abiapuntu –nola definitzen garen, zer ekintza egiten dugun edo nola hautematen den gure praktika–, elkarrekin izan daitezkeen ekintza-bide sinboliko edo praktikoak lantzeko.

Sarreretarako ikus-entzunezkoen euskarriez gain erabiliko ditugun tresnak ere simpleak dira: ahotsa, idazketa, marrazketa eta abar. Hausnarketa-giroa sortu nahi da, jolasetik edo gutxieneko ekintzatik hurbilago dagoen elkarrekintzatik abiatuta.

Topaketan une bakoitzean sortutako informazio guztia diagrama gisa erregistratuko da, azken bateratze-lana egiteko.

**EL PLACER DE PERDER EL TIEMPO.  
TALLER TRABAJAR MENOS. HACER MÁS**

El artista contemporáneo lleva años de experiencia siendo el trabajador precario de hoy. Es un profesional, un trabajador. Pero también un hacedor desde el margen y, al mismo tiempo, parte de un sistema de mercado –que incluye no sólo galerías comerciales, sino también a instituciones públicas y privadas, academia y los agentes que desarrollamos nuestra labor en este marco. Nos movemos entre estos dos polos, entre el conflicto y la resistencia, entre el enfrentamiento y la infiltración para poder desarrollar una actividad artística que responda a la producción de sentidos críticos en libertad.

¿Qué encontramos en la actitud creativa de los movimientos de autonomía italiana del 77? Los conceptos que defendían –entre otros, creatividad, rechazo al trabajo, inclusión de toda diversidad, lucha contra cualquier estructura de poder- y las formas de vivirlos – manifestaciones, paseatas, fiestas, ocupaciones, autoediciones, etc- se han asociado a estrategias dadaistas y situacionistas. Hoy, las incertezas del 77 se han extendido y acelerado. Son varias las voces que se alzan apuntando nuevamente la necesidad de un cambio de sistema y que coloca esta actitud como clave. ¿Puede el artista, profesional del “arte-vida”, paradigma del trabajador precario y de la continua construcción del yo como táctica de negociación, ser clave?

Este taller quiere, entre todas -artistas y trabajadoras del campo artístico- reflexionar sobre este posible papel que nuestra labor puede tener / queremos que tenga en la sociedad: cómo nos definimos en ella como profesionales, cómo se percibe nuestra práctica y qué estrategias imaginar para entender los tránsitos vitales de ida y vuelta entre trabajar y hacer.

Se dividirá en dos sesiones en las que compartiremos historias y experiencias, pero también confrontaremos dinámicas empresariales con nuevas ideas y posibilidades:

1. Hablar sobre los lugares, los modos y las imágenes del pasado reciente y del hoy para comenzar la conversación sobre la PRÁCTICA ARTÍSTICA, su PROFESIONALIZACIÓN y sus CONDICIONES MATERIALES en nuestro día a día.
2. Conocer la norma del tiempo para subvertir la normativización de la vida. Un diseño abierto de reflexión colectiva para DEFINIR TIEMPO. DEFINIR UTILIDAD. DEFINIR TIEMPO UTIL. DEFINIR TU TIEMPO UTIL. Para pensar en si es posible ABOLIR DEL TRABAJO o TRABAJAR MENOS y HACER MÁS.

En cada una de las sesiones habrá una introducción en la que se compartirán visiones y experiencias artísticas que son parte de la investigación TRABAJAR MENOS HACER MÁS y que servirán para abrir el diálogo a las preguntas que planteamos. Cruzaremos historias que han sucedido en Latinoamérica, Italia y en el estado español, desde mediados del siglo XX hasta hoy, analizando propuestas actuales como el Estatuto del Artista y otras políticas culturales y económicas.

Se desarrollarán también dinámicas, tanto individuales como de grupo, que normalmente se aplican en el campo empresarial y que buscan identificar posibles definiciones, conflictos y propuestas sobre qué es ser un artista y su encaje en los contextos de producción actuales.

Son ejercicios que parten de preguntas sencillas –cómo nos definimos, qué acciones llevábamos a cabo o cómo se percibe nuestra práctica– para elaborar juntas posibles vías de acción simbólicas o prácticas.

Las herramientas que usaremos, además de soportes audiovisuales para las introducciones, son también simples: la voz, la escritura, el dibujo, etc. buscando generar un ambiente de reflexión que surge de una interacción más cercana al juego o la acción mínima.

Toda la información generada en cada momento de los encuentros se irá registrando a modo de diagrama, para servir de fondo a una puesta final común.

